**Zk-4930**

213/1997 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko Dekretua hirugarrenez aldatzen duena.

Legegintzaldi honen hasieran, asmo handiko proiektu bat prestatu zen Gizarte Arazoen arloan. Horren erakusgarri da, hain zuzen, legegintza-egutegia, arlo horretan sei lege onartzea aurreikusi baita bertan. Arlo hori Lan eta Gizarte Segurantzarenarekin batera inkardinatu zen.

Legegintzaldiaren erdia baino gehiago joan delarik, helburuetako batzuk beteta daude dagoeneko, baina une honetan Sailaren egitura organikoa berraztertu beharra dago, bi arrazoirengatik.

Lehenengo eta behin, legegintzaldi honetarako hartutako konpromisoak burutzeko ahaleginak gehitu behar direlako, alde batetik; eta bestetik, legegintza-iharduera horren ondorioz erregelamendu bidezko garapen luzea gertatu delako.

Bigarren, Euskal Lan Zerbitzua-Langai abian jarri delarik eta OSALAN bete-betean iharduten hasi delarik -Lan-Arriskuen Prebentzio Lege berria indarrean jarri dela gehitu behar zaio horri-, Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza lanaz gainezka dabilelako.

Horiek horrela, Gizarte Arazoen gaiak berezitasun propioa berreskuratuko du -horixe gertatzen zen aurreko gobernuetan-, eta, horretarako, sailordetza autonomo bat sortuko da; sailordetza horren agindupean ihardungo dute orain arte gai horretaz arduratu diren bi organoek: Gizarte Ongizate Zuzendaritzak eta Droga Gaietarako Idazkaritzak.

Sailordetza honen sorrera, ordea, ezin balora daiteke Koalizio Akordioan egiturak sinplifikatu eta razionalizatzeko hartutako konpromisoak albo batera utziz. Horren ondorioz, lehendik zeuden sailordetzen iraupena aztertu behar izan dugu berriro.

Ildo horretatik, bi irizpide nagusitu dira Ekonomi eta Plangintza Sailordetza kentzeko erabakia hartzerakoan. Alde batetik, gestio-bolumena; ez urria edo garrantzi gutxikoa zelako, baizik eta beste bi sailordetzena oso handia zelako; eta bestetik, sailordetza horren eginkizunak erraz txerta zitezkeelako Sailaren egitura berrian. Horrela, Ekonomi eta Plangintza Zuzendaritza zuzenean sailburuaren agindupean egoteak ez lioke kalterik egingo gestioari.

Ondorioz, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, Lehendakariaren oniritziaz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko irailaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

**N°-4930**

DECRETO 213/1997, de 30 de septiembre, de tercera modificación del Decreto de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social.

Al inicio de la presente legislatura se diseñó un ambicioso proyecto en el área de asuntos sociales. Prueba de ello es el calendario legislativo en el que se prevé la aprobación de hasta seis leyes en ese área. La citada área se incardinó conjuntamente con la de Trabajo y Seguridad Social, en una misma Viceconsejería.

Transcurrida ya más de la mitad de la legislatura, se han cumplido parte de los objetivos, pero es necesario en este momento replantear la estructura organizativa del Departamento por dos razones fundamentalmente.

En primer lugar, porque, por un lado, hay que redoblar los esfuerzos que permitan concluir los compromisos que se asumieron en el calendario legislativo y, por otro, porque fruto de esa importante actividad legislativa resulta un desarrollo reglamentario prolijo.

En segundo lugar, porque el área de Trabajo y Seguridad Social ha sufrido una sobrecarga en su gestión como consecuencia de la puesta en marcha del Servicio Vasco de Colocación-Langai y el despliegue total de OSALAN complicado por la entrada en vigor de la nueva Ley de Prevención de Riesgos Laborales.

Estas razones justifican que, como venía siendo habitual en Gobiernos anteriores, la materia de Asuntos Sociales recupere una sustantividad propia a través de la plasmación orgánica de una Viceconsejería autónoma. De esta nueva Viceconsejería de Asuntos Sociales, además de la Dirección de Bienestar Social dependerá también, por razones obvias, la Secretaría de Drogodependencias.

Pero la aparición de esa nueva Viceconsejería no puede valorarse al margen de los compromisos de simplificación y racionalización de las estructuras que se asumieron en el Acuerdo de Coalición. Consiguientemente ha sido necesario reconsiderar la pervivencia de las Viceconsejerías existentes.

En este sentido, dos han sido los criterios que han alumbrado la decisión de suprimir la Viceconsejería de Economía y Planificación. Por un lado, el volumen de gestión, no porque fuera escaso o de poca entidad, sino porque el de las otras dos Viceconsejerías es especialmente denso. Por otro lado, la facilidad para reubicar las funciones que venía desarrollando, en la nueva estructura del Departamento. En este sentido, es perfectamente asumible, sin que se perjudique la gestión, que el área de Economía y Planificación dependa directamente del Consejero.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de septiembre de 1997,

XEDATU DUT:

*Lehenengo atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko 2. ataleko A) letrako 1. idazatia aldatu eta honela geratu da idatzita:

«1.– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua:

a) Kabinetearen Zuzendaritza.
b) Ekonomi eta Plangintza Zuzendaritza.
c) Zerbitzu Zuzendaritza.
d) Azterlanen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza».

*Bigarren atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko 2. ataleko A) letrako 3. idazatia aldatu eta honela geratu da idatzita:

«3.– Gizarte Arazoetarako Sailordetza:

a) Gizarte Ongizate Zuzendaritza
b) Droga Gaietarako Idazkaritza».

*Hirugarren atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko 2. ataleko A) letrako 4. idazatiko d) eta e) letrak kendu egin dira.

*Laugarren atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko 7. ataleko lehenengo paragrafoa aldatu eta honela geratu da idatzita:

«Ekonomi eta Plangintza zuzendaria, Zerbitzu zuzendaria eta Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendaria sailburuaren pean egongo dira artez eta hierarkikoki. Gainontzeko zuzendariak dagozkion sailburuordearen pean egongo dira. Honako egiteko hauek dagozkie guztiei oro har:»

*Bosgarren atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuari 7 bis atal berria gehitu zaio; honela geratu da idatzita atal hori:

«*7 bis atala.*– Ekonomi eta Plangintza Zuzendaritza.

1.– Dekretu honetako 7. atalean adierazten diren eginkizunez gain, honako hauek ere Ekonomi eta Plangintza Zuzendaritzak bete behar ditu:

A) Ekonomi Plangintzari dagozkionetan:

a) Epe erdirako ekonomi plana formulatu, garatu eta prestatzea.

b) Ekonomi plangintza egiteko bitartekoak zuzendu, taxutu eta prestatzea, eta bere aurrikuspenen jarraipen eta betetze ekintzak koordinatzea.

DISPONGO:

*Artículo primero.*– Se da nueva redacción al apartado 1 de la letra A) del artículo 2 del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, que queda redactado como sigue:

« 1.– Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social:

a) Dirección del Gabinete.
b) Dirección de Economía y Planificación
c) Dirección de Servicios.
d) Dirección de Estudios y Régimen Jurídico.»

*Artículo segundo.*– Se da nueva redacción al apartado 3 de la letra A) del artículo 2 del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, que queda redactado como sigue:

«3.– Viceconsejería de Asuntos Sociales:

a) Dirección de Bienestar Social.
b) Secretaría de Drogodependencias.»

*Artículo tercero.*– Se suprimen las letras d) y e) del apartado 4 de la letra A) del artículo 2 del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social.

*Artículo cuarto.*– Se da nueva redacción al párrafo primero del artículo 7 del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, que queda redactado como sigue:

«El/la Director/a de Economía y Planificación, el/la Director/a de Servicios y el /la Director/a de Estudios y Régimen Jurídico tendrán dependencia directa y jerárquica del Consejero. El resto de los/as Directores/as tendrán dependencia directa y jerárquica del Viceconsejero/a correspondiente. A todos ellos/as les corresponde con carácter general, el ejercicio de las siguientes funciones:»

*Artículo quinto.*– Se añade un nuevo artículo 7 bis al Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, con la siguiente redacción:

«*Artículo 7 bis.*– Dirección de Economía y Planificación.

1.– La Dirección de Economía y Planificación ejercerá, además de las funciones señaladas en el artículo 7 del presente Decreto, las siguientes:

A) En materia de Planificación Económica:

a) Formular, desarrollar y elaborar el Plan Económico a medio plazo.

b) Dirigir, formar y elaborar los instrumentos de planificación económica y coordinar las acciones de seguimiento y cumplimiento de sus previsiones.

c) Lurralde-antolaketarako bitartekoen, maiatzaren 31ko 4/1990 Legean aurrikusitakoen, eratze-prozesuan parte hartzea, ekonomiaren aldetik garrantzizkoak diren eta eskualde-plangintzari eragiten dioten erabakietan.

d) Euskal Autonomi Elkarteko gainerako instituzio publikoen iharflueren plangintzan esku hartzea, Jaurlaritzak erabakitzen duenari jarraiki.

e) Ekonomian protagonista diren eragile sozial eta ekonomikoen partaidetza dinamizatu eta partaidetza hori gauzatzeko bideak bultzatzea, benetan itundutako plangintzara heldu ahal izateko.

B) Ekonomi azterlanei eta metodoei dagozkienean:

a) Ekonomiari buruzko azterlan, txosten eta argitalpenak, nahiz orokorrak nahiz sektorekakoak, egitea, ekonomi politika eraginkorra eta koherentea ahalbidetzeko.

b) Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrak egin eta ekonomi iharduerari eragiten dioten azterlan guztiak koordinatzea, Ekonomi Gaietarako Ordezko Batzordeak kasuan kasu ezartzen duenaren arabera.

c) Jaurlaritzak ezarritakoaren ildotik ekonomi arloan diharduen zernahi organori laguntza teknikoa ematea.

d) Ekonomi ikerketarako metodoak garatzea eta, bereziki, euskal ekonomiaren zein beronen sektoreen eta/edo segmentuen ereduak.

C) Ekonomi koiuntura eta aurrikuspenari dagozkienetan:

a) Euskal Autonomi Elkartearen urteko eta seihileko egoera ekonomikoari buruzko txostenak prestatzea, Euskadiko Diruegitamuen Jaurpideari buruzko xedapen legalen testu bateratua onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuko 61. atalean eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Euskal Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legeko 3.3 atalean hurrenez hurren ezarritakoaren arabera.

b) Euskal Herriko bertako nahiz Euskal Herrian eragina duen ekonomiaren eta politika ekonomikoaren egoera eta bilakaeraren jarraipena egitea, bai eta estatuko zein nazioarteko koiuntura ekonomikoarena ere.

c) Koiuntura ekonomikoari buruzko azterlanak, txostenak eta argitalpenak prestatzea, euskal ekonomiaren bilakaera globala eta sektorekakoa nolakoa izan litekeen jakiteko aurrikuspen-teknikak landu eta erabiliz.

D) Eskualde-politikari dagokionetan:

a) Eskualde-Garapenerako Europar Fondoaren baliabideak Euskal Autonomi Elkartean kudeatu eta koordinatzea.

c) Participar en el proceso de formación de los instrumentos de ordenación territorial, previstos en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, en aquellas determinaciones de trascendencia económica con repercusión e incidencia en la planificación regional.

d) Participar, en los términos que el Gobierno disponga, en la planificación de las actividades del resto de Instituciones Públicas en las que forme parte la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Dinamizar y promover fórmulas de participación de los agentes sociales y económicos protagonistas de la vida económica a fin de lograr una auténtica planificación concertada.

B) En materia de Estudios Económicos y Métodos:

a) Realizar los estudios, informes y publicaciones de naturaleza económica, sean de carácter general o sectorial, con la finalidad de posibilitar una política económica eficaz y coherente.

b) Coordinar todos los estudios con incidencia en la actividad económica realizados por la Administración General de la Comunidad Autónoma, en los términos que pudiera establecer la Comisión Delegada para Asuntos Económicos en cada caso.

c) Prestar apoyo técnico a cualquier órgano que opere en el campo económico en los términos que establezca el Gobierno.

d) Desarrollar métodos de investigación económica, y en particular, de modelos de la economía vasca y de sectores y/o segmentos de la misma.

C) En materia de Coyuntura y Previsión Económica:

a) Elaborar los informes sobre la situación económica de la Comunidad Autónoma del País Vasco anual y semestral previstos en el artículo 61 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, y en el artículo 3.3 de la Ley 9/1997, de 27 de junio, del Consejo Económico y Social Vasco/Euskadiko Ekonomía eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, respectivamente.

b) Efectuar el seguimiento de la situación y evolución de la economía y de la política económica del País Vasco, o con incidencia en el mismo, así como de la coyuntura económica estatal e internacional.

c) Elaborar análisis, informes y publicaciones sobre coyuntura económica, mediante la elaboración y utilización de técnicas de previsión para estimar la posible evolución global y sectorial de la economía vasca.

D) En materia de Política Regional:

a) Gestionar y coordinar los recursos del Fondo Europeo de Desarrollo Regional dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Euskal Herriaren eremuan, Eskualde eta Gizarte Eraldaketarako Planaren proposamena aplika daitekeen araudi komunitarioaren arabera zuzendu, taxutu eta prestatzea.

c) Euskal Autonomi Elkartearentzako Laguntza Komunitarioaren 2. Helburua lortzeko Esparruaren formulazioan esku hartzea, aplika daitekeen araudi komunitarioaren arabera.

d) Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak prestatu beharreko programak eta ekimenak izan ezik, Euskal Autonomi Elkarteko Eskuhartze Komunitarioko Programa eta Ekimenak prestatu, horien jarraipena egin eta programa zein ekimen beroriek zer-nola osatu eta gauzatzen diren begiratzea.

e) Lurralde-eremu jakinetako eskualde-politikarako planak eta eskuhartze-planak formulatu, garatu eta gainbegiratzea.

f) Jaurlaritzari europar politika ekonomikoaren eta, bereziki, eskualde-politikaren bilakaera eta garapenaren berri ematea.

g) Eskualde-politikari dagozkionetan, Estatuko Administrazioarekin koordinatu, lankidetza-harremanak izan eta elkarlanean ihardutea.

2.– Aurreko atalean ezarritako eginkizunez gain, Ekonomi eta Plangintza Zuzendaritzak Euskal Estatistika Erakundearenarekin bateratuko du bere iharduera».

*Seigarren atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko bigarren atalburuko bigarren sekzioa aldatu eta honela geratu da idatzita:

«2. SEKZIOA: GIZARTE ARAZOETARAKO SAILORDETZA»

*15. atala.*– Gizarte Arazoetarako Sailordetza.

1.– Gizarte Arazoetarako Sailordetzak, dekretu honetako 6. atalean zehaztutako eginkizunez gain, beste honako hauek ere bete beharko ditu:

a) Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten erakunde publiko zein pribatuen iharduerak planifikatu, sustatu eta koordinatzea.

b) Droga-menpekotasunen arloan iharduteko ildoak proposatu eta prestatzea.

2.– Gizarte Arazoetarako Sailordetzaren agindupean ihardungo dute bi zuzendaritza hauek:

a) Gizarte Ongizate Zuzendaritzak.
b) Droga Gaietarako Idazkaritzak.

*16. atala.*– Gizarte Ongizate Zuzendaritza.

Dekretu honetako 7. atalak orokorrean ematen dizkion eginkizunez gain, honako hauek ere Gizarte Ongizate Zuzendaritzak bete behar ditu:

b) Dirigir, formar y elaborar la propuesta del Plan de Reconversión Regional y Social, en el ámbito y dimensión del País Vasco, de acuerdo con la normativa comunitaria que resulte de aplicación.

c) Participar en la formulación del Marco de Apoyo Comunitario para el País Vasco del Objetivo n.º 2, de acuerdo con la normativa comunitaria que resulte de aplicación.

d) Elaborar, realizar el seguimiento y controlar la formación y ejecución de los Programas e Iniciativas de Intervención Comunitaria que correspondan a la Comunidad Autónoma del País Vasco, salvo aquellos Programas e Iniciativas cuya elaboración corresponda al Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

e) Formular, desarrollar y supervisar en su gestión los planes de política regional interna y de intervención en espacios territoriales determinados.

f) Informar al Gobierno sobre la evolución y desarrollo de la política económica europea y, especialmente, de la política regional.

g) Llevar a cabo relaciones de coordinación, cooperación y colaboración con la Administración Central en materia de política regional.

2.– Además de las funciones establecidas en el apartado anterior corresponde a la Dirección de Economía y Planificación la función de coordinar su actividad con la del Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística».

*Artículo sexto.*– Se da nueva redacción a la Sección segunda del Capítulo segundo del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, que queda redactada como sigue:

«SECCION 2: VICECONSEJERIA DE ASUNTOS SOCIALES»

*Artículo 15.*– Viceconsejería de Asuntos Sociales.

1.– La Viceconsejería de Asuntos Sociales, realizará además de las funciones especificadas en el artículo 6 del presente Decreto, las siguientes:

a) Planificar, promover y coordinar las actuaciones de los organismos públicos y privados que actúen en el campo de los servicios sociales.

b) Proponer y elaborar pautas de actuación en materia de drogodependencias.

2.– Dependen de la Viceconsejería de Asuntos Sociales las siguientes Direcciones:

a) Dirección de Bienestar Social.
b) Secretaría de Drogodependencias.

*Artículo 16.*– Dirección de Bienestar Social.

A la Dirección de Bienestar Social le corresponde, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Gizarte Zerbitzuak planifikatu, antolatu eta garatzea.

b) Gizarte Zerbitzuetako iharduerak koordinatzea eta administrazio publikoek zein erakunde pribatuek gizarte zerbitzuei buruzko oinarrizko araudia nola betetzen duten gainbegiratu eta kontrolatzea.

c) Prebentzio-iharduera espezifikoak zein orokorrak prebentzio komunitarioaren eremuan planifikatu eta kudeatzea.

d) Gizarte Zerbitzuetarako langile trebatuak prestatzea, HAEEak arlo horretan dituen eskuduntzak kaltetu gabe.

e) Azterlanen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzarekin elkarlanean, premia eta baliabide sozialei buruzko azterlanak programatu, eta hala balegokio, prestatzea.

f) Zuzeneko ekintzakotzat definitutako programak, Eusko Jaurlaritzaren aginpidekoak, kudeatzea.

g) Gizarte Zerbitzuetako araudiaren garapena bultzatzea.

h) Pobreziaren Aurkako Plana koordinatu, gainbegiratu eta kontrolatzea. Plan horretan dauden pertsonak eta familia-unitateak gizarteratzeko programak formulatu eta bultzatzea.

i) Ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 36.4 atalak Ongintza eta Sorospen Fundazioen gainean ezartzen dizkion eginkizunak betetzea.

j) Bere garaian ongintza partikularreko establezimendu bezala kalifikatu ziren elkarte eta erakunde pribatuei buruzko egintzak kalifikatu, inskribatu eta egiaztatzea, eta gizarte zerbitzuetan diharduten eta lurraldez gaindikoak diren erakunde lankideak kalifikatu eta inskribatzea.

*16 bis atala.–* Droga Gaietarako Idazkaritza.

1.– Droga Gaietarako Idazkaritzaren eginkizunak honako hauek dira:

a) Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren bitartez, droga-menpekotasunei dagozkienetan Jaurlaritzari aholkuak ematea.

b) Jaurlaritzaren laguntza eta sorospenerako organo legez ihardutea, hark, sailek drogamenpekotasunen arloan dituzten programak koordina eta gainbegira ditzan, eta helburuak eta programa horiek nola betetzen diren kontrola dezan.

c) Droga-menpekotasunen arloko iharduerari buruzko arauak ezarri, aldatu eta aplikatzeari buruzko proposamen orokor eta espezifikoak egitea.

d) Droga-menpekotasunen arloko ikerketa, azterlan eta dokumentazioari buruzko orientabideak prestatu eta proposatzea.

a) Planificar, ordenar y desarrollar los Servicios Sociales.

b) Coordinar las actuaciones y supervisar y controlar la ejecución de la normativa sustantiva sobre Servicios Sociales, tanto por parte de las Administraciones Públicas como por parte de las Entidades Privadas.

c) Planificar y gestionar las actuaciones preventivas, específicas e inespecíficas, en el ámbito de la prevención comunitaria.

d) Formar personal cualificado para los diversos Servicios Sociales sin perjuicio de las competencias del IVAP.

e) Programar y, en su caso, elaborar estudios sobre necesidades y recursos sociales en colaboración con la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico.

f) Gestionar los programas que, definidos como de acción directa, son competencia del Gobierno Vasco.

g) Impulsar el desarrollo normativo en materia de Servicios Sociales.

h) Coordinar, supervisar y controlar el Plan de Lucha contra la Pobreza. Formular e impulsar los programas dirigidos a la inserción de las personas y unidades familiares acogidas al Plan.

i) Ejercer las funciones que, en relación con las Fundaciones benéfico-asistenciales, establece el artículo 36.4 de la Ley 12/1994, de 17 de junio.

j) Calificar, inscribir y certificar aquellos actos que se refieran a Asociaciones e Instituciones Privadas en general que fueron en su día calificadas como establecimientos de beneficiencia particular, así como calificar e inscribir las entidades colaboradoras de Servicios Sociales de ámbito supraterritorial.

*Artículo 16 bis.–* Secretaría de Drogodependencias.

1.– A la Secretaría de Drogodependencias le corresponde el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Asesorar al Gobierno, a través del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, en materia de Drogodependencias.

b) Actuar como órgano de apoyo y asistencia al Gobierno, a fin de que éste pueda coordinar, supervisar y controlar el cumplimiento de los objetivos y programas de actuación de los distintos Departamentos en relación con las Drogodependencias.

c) Formular propuestas genéricas y específicas relativas al establecimiento, modificación y aplicación de las normas que regulan la actuación en materia de Drogodependencias.

d) Elaborar y proponer criterios de orientación sobre política de investigación, estudio y documentación en materia de Drogodependencia.

e) Droga-menpekotasunen arloan egiten diren proiektu eta aurreproiektu guztien derrigorrezko txostena ematea.

2.– Droga Gaietarako Idazkaritzak, bere eginkizunak behar bezala betetzeko, beharrezkotzat jotzen dituen argibide guztiak eskatuko dizkie Jaurlaritzako sailei eta gainontzeko herri-aginteei, bai droga-menpekotasunei buruz, eta bai, bereziki, sail eta aginte horiek arlo horretan burututako iharduerei buruz, eta komunikatzeko egokiak iruditzen zaizkion mekanismoak ezarriko ditu. Komunikazioak argibideetarako baino ez dira egingo eta, beraz, agintari nahiz organismo bakoitzak zerbitzuaren kudeaketan izan dezakeen erantzukizunari ez die eragingo».

*Zazpigarren atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko 17. atala aldatu eta honela geratu da idatzita:

«*17. atala.*– Lan eta Gizarte Segurantza Sailordetza.

1.– Dekretu honetako 6. atalean orokorrean ematen zaizkion eginkizunez gain, honako hauek ere Lan eta Gizarte Segurantza Sailordetzak bete behar ditu:

a) Lan-harremanetan iharduerak eragin eta koordinatzea.

b) Enplegu eta prestakuntza arloko politikak eta programak prestatu eta proposatzea.

c) Euskal Autonomi Elkarteko enpleguaren eta prestakuntzaren egoera eta bilakaera aztertzea.

d) Gizarte ekonomian iharduerak bultzatu eta koordinatzea, batez ere honako alderdi hauei dagozkienetan: sustapena, aholkularitza, prestakuntza, kalifikazioa, inskripzioa eta kontrola.

e) Gizarte Segurantzaren zuzendaritza, antolaketa eta administrazioa, eta bere erregimen ekonomikoaren kudeaketa gainbegiratzea, Ogasun eta Herri-Administrazio Sailak dituen eskuduntzak kaltetu gabe.

f) Gizarte Segurantza eta Gizarte-Emendiotarako Borondatezko Erakundeen arloan iharduerak programatzea.

2.– Lan eta Gizarte Segurantza Sailordetzaren menpe daude honako zuzendaritza hauek:

a) Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.
b) Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza.
c) Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza».

*Zortzigarren atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko 21. eta 22. atalak kendu egin dira.

e) Informar con carácter preceptivo todo tipo de Proyectos o Anteproyectos de normas que se dicten en materia de Drogodependencias.

2.– Para el adecuado ejercicio de sus funciones, la Secretaría de Drogodependencias recabará de los Departamentos del Gobierno y de los demás poderes públicos, cuanta información considere necesaria sobre drogodependencias y, especialmente, de las actuaciones que aquellos realicen en ese campo, y establecerá los mecanismos de comunicación que estime oportunos. Las comunicaciones se harán a los simples efectos de información, sin menoscabo, por tanto, de la responsabilidad directa de la gestión del servicio que pueda corresponder a cada Autoridad u Organismo.»

*Artículo séptimo.*– Se da nueva redacción al artículo 17 del Decreto 141/1995, de 7 de febrero , de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía Trabajo y Seguridad Social, que queda redactado como sigue:

«*Artículo 17.*– Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social:

1.– Corresponden a la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social, además de las funciones que con carácter general se le atribuyen en el artículo 6 del presente Decreto, las siguientes:

a) Impulsar y coordinar las actividades en materia de relaciones laborales.

b) Elaborar y proponer políticas y programas de empleo y formación para el empleo.

c) Analizar la situación y evolución del empleo y de la formación para el empleo en la Comunidad Autónoma.

d) Impulsar y coordinar las actuaciones en el campo de la economía social, prioritariamente en sus aspectos de promoción, asesoramiento, formación, calificación, inscripción y control.

e) Supervisar la dirección, organización y administración de la Seguridad Social y la gestión del Régimen Económico de la misma sin perjuicio de las competencias del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

f) Programar las actuaciones en materia de Seguridad Social y Entidades de Previsión Social Voluntaria.

2.– Dependen de la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social las siguientes Direcciones:

a) Dirección de Trabajo y Seguridad Social.
b) Dirección de Empleo y Formación.
c) Dirección de Economía Social».

*Artículo octavo.*– Se suprimen los artículos 21 y 22 del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social.

Atal horiek kendu direnez, aurrerantzean, dekretu horretako 23. eta 24. atalak 21. eta 22. atalak izango dira, hurrenez hurren.

*Bederatzigarren atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko lehenengo xedapen gehigarriko c) letra aldatu eta honela geratu da idatzita:

> «c) Zerbitzu Zuzendaritzari emandako eskuduntzak eta eginkizunak Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak beteko ditu, eta vice versa.
>
> Ekonomi eta Plangintza zuzendariaren eskuduntzak eta eginkizunak Zerbitzu zuzendariak beteko ditu.»

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko laugarren xedapen gehigarriak 15. eta 16. atalei buruz egiten duen aipamena 7 bis atalari buruz egiten dela ulertu behar da.

*Bigarrena.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko dekretua aldatzen duen maiatzaren 14ko 107/1996 Dekretuko 7. atalak otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko 23. atalari buruz egiten duen aipamena otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuko 21. atalari buruz egiten dela ulertu behar da.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko irailaren 30ean.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Justizi, Ekonomi, Lan eta
Gizarte Segurantza sailburua,
FRANCISCO EGEA GARCÍA.

Como consecuencia de dicha supresión los artículos 23 y 24 del citado Decreto pasan a tener los números 21 y 22 respectivamente.

*Artículo noveno.*– Se da nueva redacción a la letra c) de la Disposición Adicional primera del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, que queda redactada como sigue:

> «c) Las competencias y funciones atribuidas a la Dirección de Servicios serán ejercidas por el/la Director/a de Estudios y Régimen Jurídico y viceversa.
>
> Las competencias y funciones del/a Director/a de Economía y Planificación serán ejercidas por el/la Director/a de Servicios.»

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– La referencia que la Disposición Adicional cuarta del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social realiza a los artículos 15 y 16 ha de entenderse realizada al artículo 7 bis del mismo.

*Segunda.*– La referencia que el artículo séptimo del Decreto 107/1996, de 14 de mayo, de modificación del Decreto de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, realiza al artículo 23 del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, ha de entenderse realizada al artículo 21 de este último Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

El presente Decreto entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de septiembre de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Justicia, Economía,
Trabajo y Seguridad Social,
FRANCISCO EGEA GARCÍA.